

XXX/2026 DEKRETUA, 2026ko Xaren (e)koa, Ikerkuntzako Euskadi Saria arautzen duena.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailari dagozkion egitekoen artean dago zientzia eta jarduera zientifikoa sustatzea eta zabaltzea Euskal Autonomia Erkidegoan. Arlo horretan, ikerketa-talentua indartzeko, proiektatzeko eta aintzatesteko jarduerak garatzen ditu sail horrek. Eskumen horiek baliatuz, eta bikaintasun zientifikoa eta ezagutzaren inpaktu soziala bultzatzeko, justifikatuta dago «Ikerkuntzako Euskadi Saria» arautzea eta haren deialdia egitea, funtsezko tresna baita Euskadin aurrerapen zientifikoa sustatzeko.

«Ikerkuntzako Euskadi Saria» 1996an sortu zen, eta, harrezkero, hainbat dekreturen bidez eguneratu da. Dekretu horiek, hain zuzen, ondoz ondoko aldietan arautu dute sariaren funtzionamendua. «Ikerkuntzako Euskadi Saria» deitu eta arautu duten dekretu horiek bikaintasun zientifikoa sustatzeko oinarriak ezarri dituzte azken 30 urteetan, baina zaharkituta geratu dira Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea indarrean jarri zenetik. Horregatik, ezinbestekoa da arau-esparrua eguneratzea eta finkatzea, lege-eskakizun berrietara behar bezala egokitzen dela ziurtatzeko.

Arau honen xedea da «Ikerkuntzako Euskadi Saria» emateko oinarri arautzaileak ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoan bikaintasun zientifikoa aitortu eta sustatzeko. Sari honen helburua da ezagutzaren sorkuntza, berrikuntza eta garapen teknologikoa sustatzea, bai eta beren lanaren bidez Euskadiko aurrerapen zientifiko, teknologiko, ekonomiko eta sozialari ekarpen nabarmenak egin dizkieten ikertzaileen ekarpena nabarmentzea ere.

Era berean, 2030erako Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren (ZTBP 2030) helburu estrategikoei dagokie saria.. Plan horren helburua da Euskadi berrikuntzan aurreratuen dauden Europako eskualdeen artean kokatzea, emaitzetara bideratutako I+G+b sustatuz, talentu zientifiko-teknologikoa bultzatuz – bereziki emakumeen artean – eta zientziaren inpaktu soziala eta ekonomikoa indartuz.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da dekretu hau onartzea, «Ikerkuntzako Euskadi Saria» eguneratu eta indarreko lege-esparrura egokitzen duena.

Arau hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.1 artikuluan aurreikusitako erregulazio onaren printzipioekin. Hala, premia- eta efikazia-printzipioei dagokienez, I+G+b arloan giza baliabideak indartzeko eta ikerketa-jarduera sustatzeko politikien interes orokorreko arrazoiak justifikatzen du araua. Proporzionaltasun-printzipioa betetzen da, aipatutako premiari erantzuteko ezinbestekoa den erregulazioa jasotzen baitu. Arau honek segurtasun juridikoaren printzipioa indartzen laguntzen du, eta, beraz, printzipio hori betetzen du, arlo horretako araudiarekin koherentea delako. Gardentasun-printzipioa betetzen da arauaren hartzaileei entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidearen bidez emandako parte-hartzeagatik. Azkenik, eraginkortasun-printzipiora egokitzearen arrazoia da proiektu honek ez duela administrazio-karga erantsirik edo alferrikakorik ezartzen.

Era berean, arau hau bat dator Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 4. artikuluan xedatutako arau-kalitatearen printzipioekin.

Ondorioz, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2026ko XXaren XX (e) (a) n egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua. Helburua.

Dekretu honen xedea da «Ikerkuntzako Euskadi Sariaren» oinarri arautzaileak ezartzea.

2. artikulua. Maiztasuna eta modalitateak.

1. – Saria bi urtez behin txandakatzen da, honela: urte bikoitietan, zientzia eta teknologiari buruzkoa izango da gaia, eta, bakoitietan, berriz, gizarte-zientziei eta giza zientziei buruzkoa.

2. – Zientzia eta teknologiaren modalitateak arlo hauek hartzen ditu: oinarrizko zientziak, bizitza-eta osasun-zientziak, teknologiak eta arkitektura.

3. – Gizarte-zientzien eta giza zientzien modalitateak zientzia sozioekonomikoen, juridikoen eta giza zientzien arloak barne hartzen ditu.

3. artikulua. Deialdia.

«Ikerkuntzako Euskadi Saria» urtero deituko da Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren agindu bidez. Agindu horretan, gutxienez, honako hauek jasoko dira: xedea, sariaren zenbateko ekonomikoa eta hautagaiak aurkezteko epea; epe hori ez da inola ere hilabetetik beherakoa izango.

4. artikulua. Betekizunak.

1. – Baldintza hauek betetzen dituzten ikertzaileek eskuratu ahal izango dute «Ikerkuntzako Euskadi Saria»:

a) Doktore-titulua izatea.

b) Eskaera egiten den egunean, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile gisa egiaztatutako ikerketa-zentro batekoa izatea, lanaldi osoko edo partzialeko kontratu bidez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren arabera, kategoria hauetakoren batean:

1. Unibertsitateetako ikerketa-egiturak.

2. Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroak.

3. Ikerketa Kooperatiboko Zentroak.

4.- Zentro teknologikoak.

5. I+G Sanitarioko Erakundeak.

Ikerbasque Fundazioak kontratatutako «Ikerbasque Research Fellows» ikertzaileen hautagaitzak ere onartuko dira, baldin eta aipatutako agente-kategorien barruko zentzoren bati atxikita badaude.

c) Gutxienez 12 urtez karrera zientifikoa Euskal Autonomia Erkidegoan egin izana, doktoregoa lortu ondoren.

Hautagairen baten ikerketa jarduera eten bada honako egoeretako baten ondorioz: iraupen luzeko aldi baterako lan ezintasuna, amatasuna, aitatasuna, edoskitzaroan arriskua egotea, adopzioa edo harrera, bai eta Unibertsitateko kudeaketa kargu unipersonalak betetzeagatik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteetan zuzendaritza karguak betetzeagatik edo Administrazio Publikoetan karguak izateagatik ere, etenaldi horiei dagokien denbora ikerketa karrerako 12 urteko epearen barruan zenbatuko da.

2. – Aurreko edizioetan «Ikerkuntzako Euskadi Saria» lortu duten eskatzaileen hautagaitzak ez dira onartuko.

3. – Ezingo dira onuradun izan honako egoera hauetako batean dauden pertsonak:

a) Laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuak izatea, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

b) Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaria egin dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jota daudenak, hartzekodunen konkurtsoan deklaratu daudenak (salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek eragingarritasuna hartu badu), epailearen esku-hartzearen mende daudenak edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta daudenak, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia amaitu gabe egonik.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragitea, kausaren batean errudun deklaratu izateagatik.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak honako lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean egotea: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea. Edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

e) Erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean izatea zerga-egoitza.

f) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan zehaztutako moduan (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

g) Ebazpen irmo bidez dirulaguntzak lortzeko aukera galtzeko zehapena jaso dutenak, lege honen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera. Zehazki, sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penala jaso izana, dagokion zehapenean ezarritako aldia gainditu gabe.

h) LGTBI-fobia egin, bultzatu edo sustatzea, bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea barne, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua arabera.

i) Zehatuta egotea Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

5. artikulua. Eskabideak egitea.

1. – Eskabidea egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan telematikoki eskuragarri egongo den inprimakia bete beharko da, urtarrilaren 11ko 4/2022 Dekretuaren 3. artikulua arabera (4/2022 Dekretua, urtarrilaren 11koa, zeinaren bidez bitarteko elektronikoak erabiltzeko betebeharra arautzen baita ikerketarako laguntzen eta "sarien

eskabideetan eta gainerako izapideetan).

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak aplikazio elektronikoaren bidez erantsi beharko dira. Horretarako, hautagaiak alta eman beharko du erabiltzaile gisa, eta aplikazio horretan zehaztutako jarraibideak bete beharko ditu.

Ziurtagiri elektronikoaren bidez sartuko gara aplikaziora. Aplikaziora sartzen diren pertsonak baimena ematen diote Zientzia Politikarako Zuzendaritzari, deialdiaren organo kudeatzaileari, nortasun-datuak egiazta ditzan administrazio eskudunean, bai bitarteko elektronikoen bidez, bai eskuragarri dauden beste bitarteko batzuen bidez.

2. – Eskabide telematikoa osorik betetakoan eta 6. artikuluan adierazitako dokumentuak aplikazioaren bidez erantsitakoan, eskatzaileak eskabidea erregistratzeko prozesu elektronikoa osatu beharko du, hau da, sinadura elektronikoen bidez eskabide bati balioa emateko, erregistratu dela jasota geratu beharko da. Hori ziurtatzeko, eskatzaileak dokumentuak aurkezteko Erregistro Elektroniko- aurkezpen-erregistroa eskura dezake, «Ikusi egiaztagiria E/E» aukeraren bidez. Ez da onartuko osorik modu elektronikoa bete eta erregistratu ez den eskabiderik.

6. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1. – Eskabidea elektronikoki izapidetzen den bitartean eta behar bezala aurkezteko, eskatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Memoria bat (5 orrialde gehienez), 11. artikuluan jasotako ebaluazio-irizpideei dagokienez izangaiaren merezimenduak azaltzen dituena; zehazki, honako hauek: ikerketa-karrera, ikerketa-taldearen lidergoa, ikerketa-azpiegituren sorrera, eskola zientifikoaren sorrera eta egindako ikerketak Euskal Autonomia Erkidegoan izan duen eragina.

b) Hautagaiaren curriculum vitae.

c) Hautagaiaren curriculum vitae-aren laburpena (2 orrialde gehienez) ingelesez, bere karrerako elementu nabarmenenak barne.

d) Erakunde zientifikoek edo zientzialariek hirugarren baten alde proposatutako hautagaitzen kasuan, honako hauek aurkeztu beharko dira:

1. Hautagaitzaren proposamen-idazkia, proposamena egiten duten erakundeak edo pertsonak berriaz identifikatuta.

2. Hautagaiak hautagaitza onartzeko idazkia.

e) Era berean, proposamena egin duten pertsonen gain, zientzialariek egindako 5 gomendio-idazki aurkeztu ahal izango dira gehienez.

f) Zerbitzu-orria edo ziurtagiria, izangaia 4.1.b) artikuluan adierazitako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile-kategorietan sartutako ikerketa-zentroren batean sartuta dagoela edo hari atxikita dagoela egiaztatzen duena.

g) Zerbitzu-orria edo ziurtagiria, ikerketa-karrera garatu den zentroan edo zentroetan izandako antzinatasuna jasotzen duena, 4.1.c) artikuluan ezarritako betekizuna egiaztatzeari begira.

f) eta g) apartatu horietan eskatutako dokumentazioa dokumentu bakar batean aurkeztu ahal izango da, baldin eta hautagaiak egiaztatu ahal badu Euskal Autonomia Erkidegoan hamabi urteko karrera zientifikoa egin duela gaur egun kontratatuta edo atxikita dagoen zentroan.

2. – Eskatzaileek ez dute zertan aurkeztu administrazio publikoen esku dauden dokumentuak eta

informazioa. Horretarako, ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten datuak edo dokumentuak administrazio publikoen datuak trukatzeko plataformen bidez lortu edo egiaztatuko dira, salbu eta interesduna aurka badago edo teknikoki ezinezkoa bada horiek lortzea. Hori guztia, Administrazio Publikoari esleitutako egiaztatze-, kontrol- eta ikuskatze-ahalmenei kalterik egin gabe.

3. – Kudeaketa-organoak ofizioz egiaztatu edo lortu ahal izango du laguntzak eskatzen dituzten pertsonak betebeharrak betetzen dituztela, behar beste aldiz, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoak esleituta dituen egiaztapen-, kontrol- eta ikuskapen-ahalmenak. Hala ere, eskatzaileak kontsultaren aurka egin ahal izango du, eta, kasu horretan, aipatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

4. – 4.3 artikuluan ezarritako baldintzak betetzearen orde, hasiera batean, «Erantzukizunpeko adierazpena» I. eranskina aurkeztu ahal izango da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.5 artikulua aplikatuz.

7. artikulua. *Eskabideko akatsak zuzentzea.*

1.- Eskatzaileek 6. artikuluan eskatzen dena punturen batean betetzen ez duten eskabideak edo dokumentazioa aurkezten badituzte, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak hamar egun balioduneko epea emango die akatsak zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta ohartaraziko die, hala egin ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

2.- Jakinarazpena elektronikoki egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa argitaratuta. Argitalpen hori izango da epeak zenbatzeko balioko duen bakarra.

Era berean, eskatzaileari jakinarazpen elektronikoki bat bidaliko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera, eta ziurtagiri elektronikoa bidez sartu beharko da bertara.

Ezarritakoa alde batera utzi gabe, interesdunari abisuak bidaliko zaizkie aipatutako egoitza elektronikoa argitalpena eskuragarri jarri dela adierazteko, SMS edo posta elektronikoki bidez. Abisu horiek ez dute inola ere jakinarazpen-baliorik izango.

8. artikulua. *Laguntza kudeatzeko organoa.*

Zientzia Politikarako zuzendariak kudeatuko ditu dekretu honetan aurreikusitako laguntzak.

9. artikulua. *Esleitzeko prozedura.*

Laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Horretarako, deialdi bakoitzean aurkeztu eta onartutako eskabideak alderatuko dira, hurrenkera bat ezartzeko, 11. artikuluan ezarritako ebaluazio-irizpideei jarraikiz.

10. artikulua. *Epaimahaia.*

1. – Urtero epaimahai bat eratuko da, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera dagokion modalitatean aurkeztutako hautagaitzak ebaluatzeko.

2. – «Ikerkuntzako Euskadi Sariko» epaimahaia bere jardun-arloetan ospe handia duten hiru eta zazpi kide artekoa izango da, eta adinez nagusia izango da epaimahaiburua.

Epaimahaiaren osakeran, emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatuaren printzipioa

errespetatuko da, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. – Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren agindu bidez argitaratuko da epaimahaiaren osaera, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da, epaimahaiak epaia eman baino bost egun lehenago, gutxienez.

4. – Epaimahaiak edozein proposamen-erabaki hartzeko, kideen gehiengoaren aldeko botoa beharko da, eta, berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.

5. – Euskararen normalizazioaren mesedetan, eta epaimahaiak hala erabakitzen badu, epaimahaiakideek euskara eta gaztelania erabili ahal izango dituzte bileretan. Era berean, deialdietan, gai-zerrendetan, aktetan eta gainerako idazkietan, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.

11. artikulua. Ebaluazio-irizpideak.

Epaimahaiak ebaluatuko ditu hautagaitzak, ebaluazio-irizpide hauek kontuan hartuta:

a) Ikerketa-karrera. Hautagaiak bere eremuan ezagutzak aurrera egiteko egindako ekarpena, egindako ikerketa-jardueren eragin sozioekonomikoa edo industrialia, ezagutzaren muga ikerketak egitea, eta abar.

b) Ikerketa-taldearen lidergoa. Estatuko eta Europako norgehiagoka-deialdietako proiektuetako lidergoa eta lidergo partekatua baloratuko dira, bai eta inpaktu-argitalpenetako lidergoa ere, besteak beste.

c) Ikerketa-egiturak sortzea. Epaimahaiak, ebaluazioa egiteko, kontuan hartuko ditu, besteak beste, ikerketa-zentroen zuzendaritza edo denboran irauten duten Euskal Autonomia Erkidegoko ikerketa-azpiegituren sorrera.

d) Eskola zientifikoa sortzea. Besteak beste, jarduera hauek baloratuko dira: ikertzaileen prestakuntza, zuzendutako doktorego-tesiak, masterren koordinazioa eta graduondoko prestakuntza-programak Euskal Autonomia Erkidegoan.

e) Hautagaiak egindako ikerketaren eragina Euskal Autonomia Erkidegoan. Epaimahaiak berariaz baloratuko du egindako ikerketak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemaren eremuan duen eragina.

12. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena.

1. – Epaimahaiak ebaluatuko ditu aurkeztutako eskabideak, eta txosten bat bidaliko dio Zientzia Politikarako Zuzendaritzari, behar bezala arrazoitutako behin-behineko ebazpen-proposamena egin dezan. Txosten horretan, epaimahaiak zehatz-mehatz azaldu beharko du, 11. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, sarirako proposatutako pertsona.

Balorazio orokorrean berdinketa gertatuz gero, epaimahaiak dagokion arlo zientifikoan ordezkartza txikiena duen sexuaren sustapena erabili ahal izango du berdinketa hausteko irizpide gisa.

2. – Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren aginduz emango da dirulaguntza emateko ebazpena.

3. – Sariaren esleipena irabazleari zuzenean jakinaraziko zaio.

4. – Saria eman gabe utzi ahal izango da.

5. – Sei hilabete igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute eskatzaileek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

6. – Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

7. – Denek jakin dezaten, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 26.2 artikulua ezartzen duen bezala, emandako laguntzen publikitatea egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoan argitaratuta.

13. artikulua. *Sariaren zenbatekoa, ordainketa eta sari-banaketa.*

1. – Sariaren zenbateko ekonomikoa urteko deialdian ezarriko da.

2. – Sariak dagokion zerga-atxikipena izango du, eta zatiezina izango da bere zenbatekoan.

3. – Sariaren zenbatekoa ordainketa bakarrean ordainduko da, agindua argitaratu ondoren, 12. artikulua araberaren arabera.

4. – Ondoren, sarituari saria emango zaio ekitaldi publiko batean.

14. artikulua. *Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.*

Laguntza hau jasotzea bateragarria da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin edozein administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatutatik, Estatutik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik.

Xedapen gehigarri bakarra. *Datu pertsonalen babesa.*

Eskatzaileen datu pertsonalak «Ikerketa sustatzeko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira. Informazio hau jasoko da:

a) Arduraduna: Zientzia Politikarako Zuzendaritza, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila.

b) Helburua: ikerketa finantzatzea eta bultzatzea.

c) Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

i. 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

ii. 3/2004 Legea, otsailaren 25koa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

iii. 20/2023 Legea, abenduaren 21koa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

d) Hartzaileak:

i. Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

ii. Ogasun eta Finantza Saila.

iii. Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

- e) Eskubideak: Eskatzaileak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.
- f) Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/054300-cap2-eu.shtml>
- g) Araudia:
 - 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.
 - 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabetuta geratzen da 261/2017 Dekretua, abenduaren 5ekoa, Jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz Ikerkuntzako Euskadi Saria arautu eta sari horren Gizarte Zientzien eta Humanitateen modalitateko 2017ko deialdia egiten duena.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko XXaren XX (e) (a) n.

Lehendakaria,

IMANOL PRADALES GIL

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,

JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS